

TAXIMETROAK BERRITZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25,2 g) artikulua xedatutakoaren arabera, udalerriei dagozkie bidaiarien garraioaren eremuko eskumenak, betiere Estatuaren eta Autonomia Erkidegoaren legeriak finkatutako mugen barruan. Zerbitzu hori, gainera, tokiko erakundeen funtsezko zerbitzu moduan hartzen du aipatutako oinarri legearen 86.2 artikulua.

Beste alde batetik, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 3.3 artikulua udalei esleitzen die garraio-jarduerari dagozkion lizentziak emateko, zerbitzuari buruzko araudia egiteko, ikuskaritza lanetarako, arlo horretako zehapenak ezartzeko eta udal ordenantzak onesteko eskumena. Hori guztia herriko garraioari dagokio.

Udalak beharrezko ikusten du taximetroak, inprimagailua eta moduluak (baldin badaude) egokitu edota aldatzea, Basauriko udal-mugarterako Taxien Udal Araudian ezarritako baldintzak bete ditzaten. Izan ere, Taxien Udal Araudia aldatu egin zen 2014ko ekainaren 26ko Udalbatzaren erabakiz, eta zerbitzua emateko baldintza berriak jasotzen ditu orain.

Beste alde batetik, diru-laguntza eskuratu ahal izateko ezinbestekoa izango da kreditu bidezko ordainketak egin ahal izateko gailua jartzea, horrek erabiltzaileei onurak dakarzikielako eta, oro har, interes orokorrekoa delako.

KLAUSULAK

LEHENENGOA. Diru-laguntzaren xedea eta helburua.

1.- Oinarri hauen xedea da taxi-ibilgailuetan taximetroa, inprimagailua eta moduluak (egongo balitz) jartzeko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea, taxien osagarri horiek guztiek bat egin dezaten Basauriko udal-mugarterako Taxien Araudian ezarritako baldintzekin (hain zuzen ere, 2014ko ekainaren 26ko osoko bilkuran Udalbatzak hartutako erabaki bidez aldatu egin zena).

Diru-laguntza hauek eskuratu ahal izateko derrigorrezkoa izango da kreditu bidezko ordainketak egin ahal izateko gailua jartzea.

BIGARRENA. Onuradunak eta zenbatekoa.

1.- Banakako diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa, gehienez ere, taximetroa, inprimagailua eta modulua jartzeak eragindako gastuen % 75 izango da, 750 euroko mugarekin. BEZa diru-laguntza honetatik kanpo geratuko da.

2.- Diru-laguntzen onuradunak izango dira Udal Erroldan izena emanda dauden taxilizentzien titularrak, hain zuzen ere, aipatutako sistemak ezartzen dituztenak eta udal-zergak ordainduta dituztenak.

HIRUGARRENA. Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

1.- Interesdunek Alkatetzari zuzendutako idatzia aurkeztuko dute Basauriko Udalean, eta jatorrizko faktura edo fakturaren kopia konpultsatua erantsiko diote. Faktura eskatzailearen izenean egon beharko da eta diruz lagundutako kontzeptua jaso beharko du, hau da, adierazi beharko du taximetroa, inprimagailua edota modulua (egongo balitz) jarri edo egokitu egin direla, Araudian ezarritakoarekin bat egiteko. Era berean, egiaztatu beharko dute kreditu bidezko ordainketak egin ahal izateko gailua jarri dutela. Horretarako, dagokion finantza-erakundearen egiaztatzea aurkeztu beharko dute.

Eskabideak aurkeztu ahal izango dira Basauriko Taxi-gidarien Elkarteari diru-laguntzak eskatzeko deialdia irekitzen dela jakinarazten zaienetik edota prentsan, Udalaren webgunean zein diru-laguntzen berri emango duen beste edozein komunikabidetan iragarkiak agertzen direnetik.

Hilabeteko epea aski dela jotzen da 2014ko ekainaren 26ko Erabaki bidez aldatutako Araudian xedatutakoa betetzeko, betiere behin betiko onespren datatik zenbatzen hasita. Beraz, eskabideak aurkezteko epea 2014ko azaroaren 15ean amaituko da.

LAUGARRENA. Diru-laguntza eskuratzeko baldintzak.

1.- Lizentzia-jabe bakoitzari diru-laguntza bakarra emango zaio.

2.- Diru-laguntza behin baino ez zaio emango lizentzia-jabe bakoitzari, ez lizentziari berari.

BOSGARRENA. Diru-laguntzak emateko prozedura.

Diru-laguntza hauek emateko prozeduran salbuetsita dago aurkeztutako eskabideen artean (ezarritako baldintzak betetzen dituztenak) hurrenkera bat ezartzeko baldintza, kontsignatutako kreditua aski izango baita epea amaitutakoan aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko.

Udalak ofizioz egiaztatuko du, instalazioa egin eta gero, ezarritako baldintzak bete egiten direla eta aurkeztutako fakturak instalazio horrekin bat datozela. Baldintzak

betetzen ez badira, Diru-laguntzak Emateari buruzko Udal Ordenantzaren 25. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio, Basauriko Udal-mugarterako Taxien Araudian ezarritakoaren kalterik gabe.

SEIGARRENA. Kalifikazio batzordea.

Kalifikazio batzordea Lurralde-politika eta Kontratazioko Informazio Batzordea izango da.

ZAZPIGARRENA. Ebazpena.

Ebazpena emateko eskumena duen organoa Alkatetza izango da.

ZORTZIGARRENA. Aurrekontuko kreditua.

Aurrekontuan 28.500 euroko gehienezko kreditua aurreikusita dago.
Aurrekontuaren partida: 31 4444 77102.